




txi kitto!



**Informatikarekin
gozatz**



Euskara Elkartea

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maider Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Maider Aranberri

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Jaimito eta
andereñoa:

- Andereñoak:
Jaimito, badakizu
igeri egiten?
- Bai, andereño.
- Non ikasi duzu?
- Non ikasiko nuen
ba, uretan!!



- Zer egiten du
boligrafo Bic batek
leihotik jausten
denean?
- Aerobic!!



- Zer egiten du kaxa
batek gimnasioan?
- Kaxa fuerte bat!!



- Bi txiste eskailerak jaisten
ari dira eta batek bestea
bultzatzen du. Erori denak
esaten du:
- Ze txiste txarra zaren!!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Andereñok Mikeli:

- Esan, nola banatuko zenituzke hiru patata hamar lagunen artean?
- Oso erraz! Purea egiten!!



Neska batek esaten du:

- Ai, eneee... Ile zuri bat atera zait!!
- Eta burusoil batek erantzuten dio:
- Zuk bai zortea!!



Ume batek bere lagunari:

- Nire aitak hamar urtetan ez du ilerik moztu.
- Zer da ba, artista?
- Ez, burusoila.



Gizon bat medikuarenean:

- Mediku jauna, orain dela astebete ez dudala ezer jaten, ezta lorik egiten ere, eta gainera ez dut ezer edaten... Zer daukat?
- Zer izango duzu ba!
- Gosea, logurea eta egarria!!



- Ama, zergatik gordetzen duzu pijama burkoaren azpian?

- Ez zimurtzeko!
- Orduan zergatik ez duzu aitona ohe azpian sartzen?




Bazen behin gizon bat hain altua, hain altua... Jogurt bat urdailera heldu orduko kadukatuta zegoela.







LABIRINTOA

Txanogorritxok amonaren etxera joan behar du.
Bidea topatzeko laberintoa osatu.



Lagundu
amonatxoari
bufanda egiten





SUDOKUA

				2			7
2		9	6				
1		8	4				
	9		1	6			
	5	6				9	3
				4	5		8
				6	1		5
				1	3		9
9			2				

Hau sudoku jolasa da. 1-9ra bitarteko zenbakiak idatzi behar dira. Eskumatik ezkerrera eta goitik behera zenbaki berdinak izan dira errepikatu

HIZKI-ZOPA

KOLOREAK

U	R	D	I	N	A	Q	W	E	R	T	Y
N	Y	C	F	E	H	M	Ñ	Y	G	Ñ	U
M	G	Ñ	T	Y	R	W	L	K	L	A	I
Y	L	G	Y	H	O	R	I	A	E	W	O
N	T	D	H	D	S	F	Y	B	M	I	P
I	K	Ñ	G	M	A	G	H	G	M	L	A
C	A	Y	C	H	D	L	L	R	I	T	S
M	O	R	E	A	R	Ñ	R	Ñ	M	G	D
B	L	S	T	Z	X	O	H	A	K	Y	F
H	F	G	R	B	E	R	D	E	A	H	G
B	E	L	T	Z	A	Y	D	I	K	Ñ	H
G	J	I	Ñ	O	P	C	H	T	R	K	J

ITURBURU

“Idazleak ikastetxean” programaren barruan Uxue Alberdi idazle, bertsolari eta abeslaria Iturburun izan genuen. Uxuek bere esperientzia kontatu zigun, idazle zein bertsolari moduan duen esperientzia. Horrez gain, berak idatzitako hainbat ipuin eta olerki azaldu zizkigun, besteak beste “Besarkada”, “Poza” eta “Itsasoan” olerki-liburuak eta “Bi kobazulo” ipuina. 4. mailako ikasleek (3 talde) izan zuten Uxuekin egoteko aukera, bere abesti, bertso eta azalpenak entzuten eta gozatzen. Taldeka eta ikasle bakoitzaren izena hartuta bat-bateko hitz-jolas bat ere asmatu zuen Uxuek, ikaragarri polita. Hurrengoan ere besoak zabal-zabalik hartuko zaitugu, Uxue! Bestalde 1. mailatik 4. mailara arteko ikasleak igeriketa-ikastaroan jardun dute, eta martxoaren 8an Emakumearen Eguna gogotik ospatu genuen ikastolan eta hainbat ekintza antolatu genituen.



LA SALLE

Hilabete honetan, Martxoaren 8a ospatu dugu eskolan, era berezian, baina gustura hartu dugun eguna. Gelan ekintza desberdinak egin ditugu emakumearen egunarekin lotuta eta ikastetxea apaindu dugu. Martxoaren 11n, Peru Magdalena idazle, bertsolari eta margolariaren bisita jaso zuten 2. mailako ikasleek eta “Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean” liburuaren inguruko solasaldia izan zuten. Ikasleak eta baita Peru bera ere oso gustora egon ziren. Martxoaren azken astean 22tik 26ra euskararen astea ospatuko dugu. Hori dela eta, euskara bultzatzeko ekintza desberdinak prestatuko ditugu hilabetearen zehar.



SAN ANDRES

TRAKAMATRAKA taldeko Jon Urrutiak San Andreseko 6.mailako ikasleekin solasaldia izan du gure eskolan. Tailer eta kontzertu didaktiko bidez musika modu erakargarrian hurreratzea eta, aldi berean, birziklatze-kontzientzia lantzea dira talde honen helburu nagusiak. Aprobetxatuz 6.mailakoak kutsadura-proiektua lantzen ari direla, material birziklatuarekin egindako musika-tresnak ezagutzeko aukera izan zuten; adibidez, “skate” batekin gitarra bat, mangera eta inbutu batekin tronpeta, eskailera batean putz eginez txirularen soinua nola lortzen zuen... Oso interesgarria izan zen Trakamatrakako bisita.



URKI

A zer nolako kazetariak ditugun Arrateko Andra Mari eskolan!!!! Buru-belarri ari dira gure ikasleak irratsaio borobilak prestatzen, zein baina zein politagoak!!! Gure baratza lantzen ere hasita gaude, lurra prestatu dugu eta laister barazkiak landatuko ditugu. Ea zer nolako uzta izaten dugun udaberrian!!!

6. mailako ikasleek, martxoaren 11n, "Traka matraka" musika-tailerra izan zuten eskolan bertan.

4. mailako ikasleek, martxoaren 24ean "Itsaspeko saio literarioa" izan dute herriko liburutegian.

Besterik gabe ondo pasa!



ALDATZE

EMAKUME ERREFERENTEAK

Emakumearen Nazioarteko Eguna modu esanguratsuan bizitzeko asmoz, azken asteetan Aldatzeko LH 5. eta 6. mailako ikasleek mundu mailan, gaur egun, dauden emakume erreferenteak aztertu dituzte. Ekintza-arlo oso desberdinetako emakume zientzialariak, kirolariak, pentasariak, artistak... ezagutzera eman dituzte eskolako korridoreetan ikusgai ipini dituzten hormairudietan. Lan bikaina!



AMAÑA

Horma-irudi eder bat egin dugu emakumeen eskubideberdintasuna aldarrikatzeko. Aurten bereziki zientzia munduak betidanik alboratu dituen emakume zientzialariak omendu ditugu. Bertakoak eta mundu osokoak.

Eta Negu Gorriak-en erritmoan "Sexu makina baina gehiago da" astindu ditugu gorputzak!



URKIZU

Xabier Olaso idazlea Urkizu ikastetxean izan dugu.

3. mailakoek alde zuzenetik irakurritako liburu baten inguruan solasalditxoak, jolasak eta hainbat kantu egin genituen. Xabier oso pertsona atsegina da eta gauza interesgarri asko kontatu zizkigun. Oso ondo pasatu genuen.

"Inspira STEAM" taldeko mentoreak eskolan izan ditugu 6. mailako nesken artean zientziekiko bokazioa pizteko mintegiak ematen. Asko ikasi dugu eta barruan dugun zientzialari grina piztu zaigu batzuei. Aurten Coliseora joaterik izan ez badugu ere, "TINKO zinema euskaraz" programak eskainitako filmak eskolan ikusi ditugu eta plan bikaina izan da.



7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **APIRILAK 14** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Pello sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, PELLO VEGA

Aupa PELLO, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko sudadera zuretako! ZORIONAK!

Itsaspeko bidaiia Portalean

Lehen Hezkuntzako ikasleek urpean murgiltzeko aukera dute Portalean martxoaren 17tik. Eraikineko bigarren pisuan 'Itsaspeko bihotzak' izeneko aretoa prestatu du Galtzagorri elkarteak, urpean murgilduz hainbat gauza modu entretenigarrian biziz. Erakusketa hilaren 30era arte egongo da zabalik.

'Itsaspeko bihotzak' areto literarioak genero-berdintasunaren gaia jorratzen du euskarazko haur-literaturaren bitartez. Izan ere, aspalditik dago gai horren inguruko kezka, haurrentzako ipuinek estereotipoak eskaintzen jarraitzen baitute.

Aretoan hezkidetzan oinarritutako ibilbide artistiko eta pedagogikoa diseinatu dute, txoko batetik bestera haur-literaturan eta beste adierazpen artistiko batzuen artean bidaiatuz. Adibidez: ilustrazioa,



jostea, artisautza edo ikus-entzunezkoak.

Haur eta gazteentzako argitaratutako lanen artean, hezkidetzeta-parametro pedagogikoak dituztenak hautatu dituzte. Liburu zehatz bat aitzakiatzat hartuta, gelako txoko bakoitzean hezkidetzarekin zuzenean lotutako gai bat landuko da txikienekin.

Hau ez da Portaleak 'Itsaspeko bihotzak' erakusketa hartzen duen lehen aldia eta orain dela pare bat urte Amañako eskolakoek egin zuten bisitan ikusi genuenez, ikasleek esperientzia ederra bizitzen dute bertan. Erakusketaren txoko batetik bestera ibiliz, gidariaren azalpenak adi entzunez eta galderak eginez, asko ikasi zuten ondo pasatzearekin batera.



Amañako ikasleak, informatikan trebatzen



Pandemiaren eraginez konfinatuta eman genituen hainbat aste. Etxealdiak denoi ekarri zizkigun aldaketak, baina ikasleen kasuan oso nabarmena izan zen. Egoerara moldatu eta klaseak etxetik online jaso zituzten, horrek esan nahi duen guztiarekin: konexioak huts egiten duela, ordenagailuak funtzionatzen ez duela... Bada, Amaña ikastetxeak ikasleak informatikan trebatzen ari dira, berriro gertatuz gero, inork arazorik, teknologikoak behintzat, izan ez ditzan.

OLATZ ALBIZU, 9 URTE



Konfinatuta geundenean ikaskide batzuek arazoak izan zituzten Interneteko konexioarekin, eta horrelakorik berriro ez gertatzeko 1-4. mailetako ikasleak informatikako klaseak jasotzen ari gara. Nik, egia esan, ez nuen arazorik izan. Nire neba ere etxean zegoen eta berak erakutsi zidan nola konektatu eskolara. Nik ez dut uste berriro konfinatuko gaituztenik; gainera, nahiago dut eskolan bertan egotea klaseak etxetik hartzea baino. Etxean dena egin behar genuen ordenagailuz; gelan, berriz, koadernoarekin nahiago dugu. Asko gustatzen zaizkit informatikako klaseak. Astean behin joaten gara eta gauza berri asko ikasten ari naiz.

JOSHUA SALCEDO, 10 URTE



Eskolan informatikako klaseak hartzen ditugun lehenengo aldia da. Beharrezkoa dela pentsatzen dut, ze konfinamenduan ikasle batzuek arazoak izan zituzten eta horrela prest egon ginateke berriro horrelako zerbait gertatuko balitz. Gure taldea bitan banatzen dugu, eta taldetxo bat astelehenetan joaten da informatikara eta bestea ostiraletan. Asko ikastez gain, oso ondo pasatzen dugu. Asier maisuak esaten dizkigun ariketak egiten ditugu eta lehen ez nekien gauza asko ikasten ari naiz. Teklatuarekin nola idatzi ere ikasten ari gara, atzamar guztiak erabilita.

**IANIRE HIJAR,
10 URTE**



Informatikako klaseak liburutegian ematen ditugu; orain, liburutegia, informatika-gela ere bada. Ordenagailu txikiak erabiltzen ditugu, portatilak, bakoitzak berea du. Lehen ordenagailu handiak genituen, baina oso poliki zebiltzan eta zaharkituta gelditu ziren. Txiki hauekin askoz hobeto moldatzen gara. Gainera, oso ondo pasatzen dugu klasean, eta gauza asko ikasten ari gara. Amorrua ematen dit gure informatika-klasearen eguna jai-eguna tokatzen denean, pena handia ematen dit klase hori galtzeak.

**UNAI HAZAS,
10 URTE**



Gauza asko ikasten ari gara Asier maisuari esker: gmaila sortu eta bertara nola sartu, bideodeiak egin, classroomera nola konektatu, nola erabili, etxekolanak bertan nola egin eta nola bidali... Etxean konfinatuta egon ginenean ondo konpondu nintzen eta gustatu zitzaidan esperientzia. Ama egoten zen beti nere ondoan, laguntzen, eta ez nuen arazorik izan. Hasieran ez nekien sartzeko, dena zen berria eta amak asko lagundu zidan. Horregatik, orain aukeran, nahiago nuke klaseak etxetik hartzea. Klaseetan oso ondo pasatzen dut, informatika ikasten, baina jai-egunaren eta informatikako klaseen artean nik jai-eguna aukeratuko nuke (barreak).

**SOFIA CHARRY,
10 URTE**



Cure gela bitan banatzen dugu, batzuk astelehenetan doaz informatikara eta beste batzuk ostiraletan. Astean behin izaten ditugu klaseak. Eta klasean gelditzen den taldeak matematika ematen du ordu horretan andereñorekin. Nik nahiago dut informatika, klaseak asko gustatzen zaizkit eta gauza asko ikasten ari gara: gmaila, atzamar guztiekin teklaturekin idazten... Konfinamenduan ondo konpondu nintzen etxean baina nahiago dut klasera etortzea, horrela lagunekin egon gaitezkeelako. Etxean gu bakarrik geunden, familiarekin bai baina lagun gabe. Nahiago dut lagunekin egotea.

**ISMAEL GOMEZ,
9 URTE**



Oso ondo pasatzen dugu informatikako klaseetan eta denbora oso azkar pasatzen zaigu. Jai-eguna tokatzen denean pena handia ematen digu klasea galtzeak. Asier oso maisu jatorra da eta gauza asko erakusten dizkigu. Batzuetan haserretu ere egiten da, baina gaizki portatzen garenean bakarrik, eta hori normala da. Gauza asko ari naiz ikasten. Hala ere, nik nahiago dut eskolak etxetik jasotzea. Eskolan aspertu egiten naiz batzuetan (barreak). Etxetik errazagoa zen, klase artean jolastu egiten nuen... Bueno, baina etxeko lanak ere egiten nituen. Hasieran lotsa ematen zidan konektatzea, baina gero berehala ohitu nintzen.



sukal-saltsan

Patata kroketak

OSAGAIAK :

- 110 g gurin
- 110 g irin
- Litro erdi esne
- Litro erdi esnegain
- Kilo erdi patata-mami uretan gatzarekin egosia

Nola egin:

- 1.- Lehenik ohiko bexamel bat egingo dugu, irina gurinarekin maneatzuz. Irakiten utziko ditugu esnea eta gaina, eta irin eta gurinaren gainean isuriko dugu ondoren. Saltsa prestatzen segituko dugu, su baxuan, ondo egosi arte. Gatza emango diogu gero.
- 2.- Patata-mamia xehatuko dugu ondoren, puregailu batetik iragazita, eta bexamelean

- erantsiko dugu. Nahastura hoztu aurretik, gurina erantsiko diogu, dadotan moztua.
- 3.- Irabiagailu batez xehatuko dugu guztia, ore fina lortu arte. Hozten utziko dugu guztia. Ore trinko xamarra aterako zaigu eta erraz asko maneatu ahal izango dugu, nahi bezalako forma emanez.
- 4.- Bolatxoak egin ondoren, esku-azpiaz luzatuko ditugu kroketak eta ikusgarri geratuko zaizkigu platerean.



Adi! Irinetan pasatu gabe ogizatuko ditugu, hau da, arrautzatan eta ogi birrinetan pasatuz. Oso garrantzitsua da, frijitu aurretik, hozkailuan hainbat ordutan uztea, lehertu egingo baitira bestela.




Esne gozoa

Errezeta erraza, gailatekin jateko edo amama eta izeba etxera datozenerako, eta ligatzeko ere bai, zergatik ez. Lata handi bat esne kondentsatu beharko duzue. Kazolaren hondoan egunkari-orri bat jarriko dugu tolestaturik, latak zuzenean hondoa uki ez dezan. Hondoan egokitu eta urez beteko dugu kazola. Borbor apalean irakiten edukiko dugu gutxienez 2 orduan, tapatuta, eta ur horretan berean utziko dugu hozten. Urez estalirik egongo da beti lata. Hoztu denean, lata ireki eta esne-gozoa txigorturik eta mamiturik dagoela ikusiko dugu, galleten artean, opil gozo batekin jateko prest.



iturria: www.pagotxa.eus



Arrautzen gainean oinez...

MATERIALA:

- 6 dozena arrautza, kartoizko ontzietan
- Zabor poltsa handiak
- Ontzi bat urez eta xaboiz betea (badaezpada ere)
- Heldu baten laguntza



Nola egin:

- 1.- Zabaldu zabor poltsak sukaldeko lurrean. Lurra ondo babestuta duzula, antolatu arrautzen kartoiak bi ilaratan (oin bakoitzerako ilara bat). Aztertu arrautza guztiak ondo, pitzaturik ez daudela egiaztatzeko.
- 2.- Begiratu arrautza guztiak kartoizko ontzietan modu berean orientatuta dauden. Hain zuzen ere, horretxek egingo du indarra kasu honetan, eta, beraz, arreta bereziz zaindu behar duzu baldintza hori. Horrela, bermatzeko gainalde erregularragoa izango du gure oinak (oin hutsik egin, galtzerdirik gabe).
- 3.- Norbaiten laguntzaz, jarri oina ahalik eta posiziorik lauenean, kartoizko lehen ontziaren gainean. Helburua da pisua ahalik eta modu uniformeenean banatzea arrautzen gainean. Beste oina ere arrautzen gainean jartzeko unea da, aurrera! Aldatu pisua beste hankara, eta bermatu oina beste ilarako arrautza ontzian. Ez urduritu karraska bat entzunez gero; kartoizko kutxa izango da, seguru asko.
- 4.- Esan laguntzaileari urruntzeko eta uzteko arrautzen gainean bakarrik ibiltzen. Gogoan izan zein den sekretua: pisua ahalik eta modu uniformeenean banatzea. Ez kikildu!



Puxika ozpin eta bikarbonatoz puzten

Behar duzuen materiala erraza da: puxikak, plastikozko botila txiki bat, inbutu bat, ozpina eta sodio bikarbonatoa. Bete botilaren $\frac{1}{3}$ ozpinez. Jarri puxika inbutuan. Bete sodio bikarbonatoz erdiraino. Kendu puxika inbututik eta jarri botilan. Jarri botila buruz behera, bikarbonatoa ozpinetara jausteko. Zer gertatuko da? Bi elementuak nahastean gas bat sortuko da eta gas horrek puxika puztuko du! Egin proba!



Horrelako gehiago: www.esperimentuak.eus

“Hiriburuak” (Aldatze)

Aldatze ikastetxeokok soka-saltoan egin eta, era berean, Euskal Herriko hiriburuak ikasteko jolasa proposatu digute. Abestiaren letra:

HERRIALDE EUSKALDUNAK
 MUNDUAN EZAGUNAK
 HIRIBURUZ HIRIBURU
 ESANGO DITUGUNAK:
 IRUÑEA, NAFARROA GARAIAN
 GASTEIZ, ARABAN
 BILBO BILBO, BIZKAIAN
 DONOSTIA, GIPUZKOAN
 BAIONA, LAPURDIN
 DONIBANE GARAZI, BEHE NAFARROAN
 MAULE-LEXTARRE, XIBERUAN
 GUZTIAK EUSKALDUNAK!
 GUZTIAK EUSKALDUNAK!



BIDEOA:
[www.etakitto.es/
 txikitto/aldatze-jolasa.html](http://www.etakitto.es/txikitto/aldatze-jolasa.html)



zer irakurri

Juan San Martin Liburutegia



Hamaika andere ausart 6 urtetik aurrera

HAMAIKA andere ausartek ezagutu zuten Al Ahmar; ipuinetan galdu zuten bat eta gelditu ziren HAMAR... Andere ausart hauek mundu guztiak barnako ibilbidea eginen dute, eta, abentura bakoitzean, haietako bat desagertuko da. Hamaika andere ausart ipuina herrialde guztietan bizirik dauden herri errimen egituraz baliatzen da antzinako errima gaurkotzeko eta tradizio hori irakurle gazteenei hurbiltzeko. Fantasiatzko ipuin bat da horretarako baliabidea, toki geografiko eta kultura desberdinak, alegia.



Bestiario sekretua neskatila gaiztoak 8 urtetik aurrera

Munduko neskatila guztiak onak dira, eta esanekoak. Esnatzen direnean, ohea egin, hortzak garbitu eta fruta jaten dute gosarian. Neskatila bat marruka goxoki bat nahi duelako? Bai zera! Inoiz ez da halakorik ikusi! Gaez, pozik bainatzen dira, kantu-kantari, eta oso maitekorak izaten dira familiarekin. Neskatila batek ez duela lotara joan nahi? Bai zera! Inondik inora! Munduko neskatila guztiak onak dira, ononak, onak baino hobeak, ontasun bera baino hobeak. Guztiak?



Bihotzak dun-dun 10 urtetik aurrera

Learen aita langabezian geratu eta goiko Ixidro zaharra zaintzen hasi da. Neskatoak harreman hori, eskolako gorabeherak, familiako kontuak, lagun arteko abenturak eta abar kontatuko dizkigu, baita noizean behin izaten dituen “bidaia” ere. Bidaia horietan amets bera izaten du beti: oraindik zein den ez dakien lore bat topatu beharra.



ipuin

Nire txakurra Deisie

Bazen behin aspaldi herri txiki batean, kalean zegoen jaberik gabeko txakur bat. Lisarvettek kalean zegoen bitartean aurkitu zuen txakurra eta galdetu zion bere aitari:

- Gelditu ahal gara txakur honekin? Mesedez!!
- Bai baina zuk zainduko duzu -erantzun zion aitak.
- Eskerrik asko, aita! -esan zion Lisarvettek.

Ettxera eramán zutenean, garbitu eta lehortu egin zuten. Izena jartzea besterik ez zitzaien falta.

- Mmmm... Zein izen jarriko diot... Deisi!!! Bai, Deisi!!! -esan zuen Lisarvettek.


Egun batean, gerra bat hasi zen. Konturatu gabe joan ziren errefugio batera baina iritsi zirenean etxe bat jausi zen Deisieren gainean. Lisarvettek, pentsatuz hilda zegoela, negar egin zuen. Gau baten, Deisie atera egin zen jausi zen etxearen azpitik eta Lisarvetteren bila joan zen. Espainiara, Belgikara eta hainbat lekutara joan zen haren bila baina ez zuen aurkitu.

Lau urte pasatu ondoren, Finlandiara ailegatu zen eta han, Lisarvette aurkitu zuen. Lisarvette Deisie ihusi eta negarrez hasi zen eta esan zion:

- Inoiz ez zaitut utziko bakarrik, beti egongo gara elkarrekin.

Sara El Gagui





zu margolari